

STREAMVERSE

IDEIA: 'StreamVerse' izeneko streaming plataforma bat, non gaur egungo plataformetatik nahi duzun telesailak eta filmek osatutako zerrenda pertsonalizatua duzun.

1. **BALIO PROPOSAEMA**

• **Zer behar edo arazo konpontzen duzue?**

Egoera nahiko arrunt batean sortu genuen gure ideia. Agian horrelako zerbait bizi izan duzu: streaming plataforma ezberdinetako film eta serie pare bat ikusi nahi dituzu, baina gero lauzpabost zerbitzu ordaindu behar dituzu. Jar dezagun adibide zehatzago bat: imajinatu zure gurasoek streaming zerbitzu bat erostea erabaki zutela. "La Casa de Papel" ikusi nahi duzu, hau da, Netflixen, baina zure anaiak "Game of Thrones" ikusi nahi du, HBOn dagoena, baina bakar batean harpidetu zaitezke, beraz, ez dakizu zer egin. Horretarako irtenbide batekin etorri gara.

• **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

Gure leihakideen aldera, kalitatezko eta askotariko zerbitzua eskaini nahi dugu, kontuan izanda hau edozein poltsikorako eskuragarri izan behar duela. HBO, Netflix... bezalako multinazionalak zerbitzu mugatuak eskaintzen dituzte euren plataformetan, izan ere, pelikula, telesail eta dokumental jakin batzuk egoten dira. Horrek azken finea, kontsumitzaileari mugatu egiten dio, izan ere, honek plataforma ezberdineko filmak edota serieak ikusi nahi baldin badu ez dauka hori egiteko aukerarik. Gainera, plataformek kontsumitzaileari mugatzeko beste moduetako bat hauen kuotaren arabera izaten da, hau da, pertsona batek gero eta kuota baxuagoa orduan eta entretenimendu mugatuagoa. Ondorioz, pertsona hauek ez dute behar adin diru kuota altu hauek ordaintzeko.

Hau guztia aipatu ondoren, guk guzti honi aurre egin nahi diogu. Horretarako pertsona guztientzako eskuragarri eta ugaria izango den zerbitzu bat eskaini nahi diogu, hortaz, gure streaming plataformak balio kuantitatiboak funtsezko eginkizuna. StreamVerse plataforman, mota eta plataforma guztietako filmak edota serieak eskaini nahi ditugu, zentzuzko kuota baten bidez eta bezeroaren film aukeraketa selektiboaren bidez. Zerbitzu espezializatu eta selektiboa eskaintzen dugu, honen oinarria alokairu sistema bat izango litzateke; hau da, hilerok, bezeroak gure eskaintza zabaletik bost film, hiru telesail eta dokumental bat aukeratuko du, eta hilabete horretan, eduki horiek izango ditu eskuragarri, hurrengo hilean berriro aukeratuko du, eta gainera, nahi badu berriro berdinak aukeratu ditzake, esaterako, telesail bat ikusten hasi baina amaitu ez badu.

Ondorio gisa, gure zerbitzuak balio kuantitatiboa zein kualitatiboa ditu, pertsonalizazioaren, eskuragarritasunaren eta prezioaren balioetan oinarrituz.

